


Iritziak



Euskadi Irratiko «Gure hizkuntza hobetzeko» irratsaioa

Gaurrengungo gizartean, nork uka, komunikabideen eragina nabarmena eta guztiz garrantzikoa gertatzen da. Helduen alfabetatzerako, eta gurea bezalako gizarte batean, onuragarria ez ezik, derrigorrezkoa ere bada. Alfabetatzeak eremu zabalagoetara jo beharra dauka, eta euskaltegiek (ikasle kopuruari dagokionez, noski) ez dute horrenbesterako ematen.

Denbora puska bat pasatu da Euskararen Aholku Batzordeak alfabetatzeari lehenetsua ematea erabaki zuenetik. Eta azkenean badirudi, nahiz eta pixkanaka, hasia dela komunikabideetatik barrena abiatzen. Ezin esango dugu, hala ere, asmoak jada bideraturik eta martxan daudenik, baina lehen urrats batzu behintzat begibistan daude.

«Berbetan» ETBk ematen duen saioa alde batera utzirik, lerro hauek Euskadi Irratiak hasi berria duen «Geure hizkuntza hobetzeko» irratsaioaren aipamena egitera datoz. Askorentzat jakina denez, zazpiren bat minutuko saio laburra da, astero hiru aldiz eta edukia errepikatuz ematen dena; hau da, astearte, ostegun eta ostiraletan. Xabier Kintana da textuaren egile, eta Manu Narvaez eta Arantxa Irastorzaren ahotsez heltzen zaigu goizeko hamarrek aldean. Orain arte (otsailaren hasiera) bederatziratsaio baizik ez dira emititu, baina hala eta guztiz ere, horra gaien edukia:

1. Lehenengo egunean, programaren nondik norakoa azaltzen da. Gero, grabaketa baten bitartez, MUTILE, OGIE, EGUNE, TXAKURRE eta gisa honetako zenbait hitz aurkeztu, eta nola erabili proposatzen zaigu.

2. A organikoaren inguruko oharra.

3. Hitzak osorik ez esateak euskaldunberriari ekartzen dizkion kalteak.

4. AKEITA eta KAFEA hitzen arteko diferentziak.

5. Grabaketa baten bitartez, NAUZU eta DIDAZU aditz-formekin zenbait lekutan sortzen den nahaspila jasotzen da, ondoren bakoitzaren esanahia eta erabilera adierazteko.

6. Bokalen arteko R-G-D letren desagertze joeraz. NESKA, NESKAKIN eta itxura honetako forma nahasgarriak aipatzen dira, eta horien ordez erabili behar direnak proposatzen.

7. Asteko egunen izenak: beren etorkia eta euskara batuan nola esan behar diren.

8. Hilabete izenen etorkia eta euskara batuan nola esan behar diren.

9. Euskararen aspaldikotasunaren mitoa.

Ezinezkoa gertatzen da oraindik erabateko balorazioa egitea, baina aurrerapausu bat da argi eta garbi, eta esan beharra dago. Oinarritzko alfabetatzearen nolabaiteko definizioa sumatzen da azpitik eta aukeratu diren gai-ardatzak ere, neurri batean bederen, aproposak gertatzen dira, gure ustez, hala nola:

— Euskal kultura edo euskararen inguruko zirriborro batzu, hiztegia lantzearekin loturik.

— Zenbait lekutan gaizki erabiltzen diren hainbat elementuren zuzenketa, gramatika elemental baten eskutik.

— Letra edo fonemarik jan gabe hitzegin dezagun, ohar fonetiko batzu.

Hala ere, orokortasun eta osotasun baten premia nabarmen ageri da orain arteko lanean. Gaiak eta edukiak hain sakabanatuak eta saioak hain denbora laburrekoak izanik, eskas samar bezala gertatzen zaigu.

Oinarrizko alfabetatzeak, irratiz emango bada, gaurkotu egin behar ditu entzulearen mintzamina eta ulermena ere, eta are gehiago, jendea irakurtzen trebatu behar du, eta neurri batean bederen, idaztera ere bultzatu beharko luke.

Bide honetatik, eta lexikoa indartuz, aukera politik sor daitezke (txapelketak eta jolasak barne), sinonimo, antonimo, atzizki eta beste zenbait hitz motarekin. Era berean, albiste-emankizunetan, irratsaio musikaletan eta abarretan erabiltzen diren hiztegi eta eduki bereziak lantzeak ere joko aberatsa emango luke. Orobat, atsotitz, esaera eta abarrekin. Eta beti ere, eta nolarebait, komunikabideetatik sortzen zaizkigun beharrei erantzun asmoz.

Gramatikari dagokionez, irekitako bideari besterik gabe jarraitzea aski litzateke; hau da, A organikoa eta NAUZU-DIDAZU gisako arazo gramatikalak planteatu, eta erabiltzen denaren kontzientzia sortu, zuzenketak jarraian eta ordenaturik emanez.

Fonetikaren arloan, bestalde, ez daude gauzak hain garbi. Gutxienez, arreta handia jarri beharko litzateke jende xehearen hizkera ez ridikulizatzeko, jokaera horrek mesede baino kalte gehiago ekarriko bait luke. Ortografiaren bidetik joko genuke gehiago; alfabetoa, idaztarauak, fetxak nola idazten diren etab. azalduz.

Garrantzirik txikieneko atala kultur gaiena litzateke, gure aburuz. Gainontzeko irratsaioetan jasotzen bait da, eta gauza berezirik asmatzea baino komenigarriago iruditzen bait zaigu emititzen dena ongi ulertzen laguntzea.

Guztiaren lagungarri, eta orain artekoa sostengatzeko, aldizkari baten bitartez edo egunkarietan atera daitekeen sail berezi baten bitartez, irratsaioari dagokion textua eta ariketak argitaratu beharko lirateke. Eta agian, telefonoa edo beste bitartekoren bat erabili, ahalik eta partizipaziorik zabalena izan dadin.

Ez legoke gaizki, beraz, alfabetatzearen publizitatea egitea. Euskaldunak, —askotan oker— alfabetatuzat jotzen du bere burua eta normalean ez zaio, titulu bat jasotzeko ez bada, horrelako lanik gehiegi interesatzen.

Hau guztia, noski, beste programa baten gai izango litzateke. Izan ere, horixe da kontua; alegia «Geure hizkuntza hobetzeko» irratsaio hau urrats probetxugarria kontsideraturik, Euskadi Irratian alfabetatze-saio mardul eta sakonago baten falta nabarmena ikusten dela.

Rafa Egiguren

Ez konplexurik sartu, otoi

Euskaldun asko —ia euskara besterik ez dakitenak sarritan— izugarrizko konplexupean dauzkagu aspaldi honetan, euskara batua, euskararen normalizazioa eta euskararen inguruko gorabeherak direla medio. Eta harrigarria eta gogoan ondo josi beharrekoa hau da: jende horrek bere-berezko hizkuntza euskara duela, ia beti eta nonahi euskaraz ari dela, eta euskaratik aparte ozta-ozta eta baldarki moldatzen dela.

Noski, euskaraz alfabetatugabeak dira eta hortxe dago gakoa, baina ukaezina da, era berean, euskara badakitela (eta oso ondo gainera beren mailan) eta euskaraz kanpo ezer gutxi dakitela hizkuntza kontuan. Baina hara non dagoen tragedia: euskara besterik ez dakiten horiei izugarrizko konplexua sartzen diegu sarritan geure snobismo, berrikuntza, trakeskeria eta exparimentuekin, eta okerrago dena, askotan gero eta euskaraz gutxiago edota euskara ere ez ote dakiten errezeloa dute beren baitan itsatsirik.

Egoera xeble baina xebleago honen aurrean, hau da nire galdera: jende horrek euskaraz ez badaki, nork daki hemen euskaraz? Bere eguneroko bizitza osoa, barne eta

kanpo, esnai eta ametsetan, euskaraz eta euskaraz bakarrik egosia duenak euskaraz ez badaki, zer dakigu guk, geure bizitzaren erdia baino gehiago erdal giroan eta erdal munduan ematen dugunok? Bestela esan, norentzat da euskara jende horrentzako bezain tresna bizia, berezkoa, egunerokoa eta bihotz-erraietakoa? Hots, nork esan dezake, euskaldun huts horiek bezala, euskara bere barnemuinetako hizkuntza bakarra dela?

Guzti honek zer pentsaturik eman behar liguke, noski. Izan ere, euskararen gotorlekurik sendoenetariko bat gaur gaurkoz —eta bezeriarik seguruenak— jende horrexengan dago, ene ustez. Horregatik, hain zuzen, euskaldun komunitate elebakardun hori erreferentzi puntu derrigorrezkoa da, besteak beste, gaurko euskararen gorabehera, intenbide eta bilakabidean.

Jose Maria Sanchez Carrion «Txepetx»ek, esate baterako, garrantzi handia ematen dio bere lanetan, soziolinguistaren ikuspegitik begiraturaz, talde euskaldun monolingue horri.

«Euskara mantentzeko, salbatzeko, hiru talde behar ditugu: euskalduna, erdalduna eta elebiduna. Talde euskaldun monolingue bat sortzen ez badugu, “bilingüismo de sustitución” delakoan erortzen ari gara. Hau da, hizkuntza batek bestea jango du. Eta horretan gaude orain». (HABE, 4. zenb., 1982, 7. or.).

Soziolinguistikaren alorretik emandako arrazoi hau guk hemen darabilgun auzira aplikatu daitekeela uste dut, hein batean. Zentzu horretan, euskararen erabilerari (eta ereduari?) dagozkion auzietan, batez ere eguneroko erabilera arruntari dagozkionetan, talde hori ere aintzakotzat hartu beharrekoa dela uste dut, eta orain arte baino gehiago aukeran.

Euskararen jabetza edo ezagutza, nolabait esateko, era eta maila askotakoa izan daiteke. Konparazio baterako, hor dago ia euskara besterik ez dakien euskaldun jende alfabetatugabea, hor dago ikastolatik edo bestelako eskoletatik pasa den euskaldun jende alfabetatua, hor dira euskal idazleak, itzultzaileak, irakasleak eta hizkuntzalariak ere. Denek dakite euskara, baina nork bere ikuspegitik bizi du euskara eta askotan ikuspegi hori bakartzat edo eksklusibotzat hartzeko arriskua dago, hizkuntzaren orekarentzat horrek dakarren kaltearekin.

Esate baterako, euskalari edo hizkuntzalari batek asko jakingo du euskarari buruz, baina bere ikuspegia mugatua eta partziala da ezinbestean. Horrexegatik, hain zuzen, euskalari batek (edo beste edonork) ez dauka euskarari buruz «ex cathedra» pontifikatzerik, egia osoa berak balu bezala. Eta horrelako dextente egin da eta egiten da gure artean, euskararen azken giltza zenbait iluminaturen buruan bailegoen.

Zentzu honetan, osasungarri da gogoratzea nola, azkenaldi honetan, euskal idazleak eta batez ere literatoak izan direla euskara batuaren prozesuari kritikarik positiboena eta interesanteena egin diotenak. Adibidez, honela dio Bernardo Atxagak, «Euskara Batua ia neolingua bat da» subtitulupean:

«Gure hizkuntzaren batasuna, beranta ezezik, oso berezia izan da. Ez da ailegatu, neurri haundi batez, literaturatik, baizik eta linguisten eskutatik. Praktikak eta ikuspegi pertsonalak (hizkerak) zilegiztatutako testu-multzo baten ordez, gramatika normatibo bat osatuko omen duten «aurrerapenek» (Euskal Aditza, Euskal sintaxiaren parte bat, Euskal sintaxiaren beste parte bat, hirugarren parte bat, fonetikarako lau bideak, hamar bideak eta abar) zehaztu eta definitu dute. Egoera psikologikoak —hasieran aipatu istorio hartakoak— gaiztotu egin du arazoa: hizkuntzaren urritzaile, erreduktore zena (gramatikaskak) urritzaileago bihurtu dute batua erabiltzeko asmatu ziren arrazoi moralek».

Eta honela dio segidan:

«Neolinguae zer diren esateko Steiner-ek dioena errepetituko dizuet: Sólo sobreviven los aspectos más generales y más amorfos de la significación» (JAKIN, «Euskal narratibaren arazoak», 25. zenb., 99. or.).

Jakina, literatoen ikuspegia ere *bat* da (ez da orohartzaila), eta ez du edozein eremutarako balio. Dena den, literato onen iritzia aintzakotzat hartzekoa da beti ere, literatoak definizioz hizkuntzaren sen berezia bait du.

Era berean, hor dabilta hainbeste andereño, maisu, irakasle eta itzultzaile euskarar-ekin borrokan, beren eguneroko auzi eta arazo guztiz konkretuekin. Horiek ere badute beren eskarmentua eta beren ikuspegi berezia. Beraz, horiek ere badute zer esanik.

Eta hasierako harira berriro itzultzeko, hor daude ia euskara besterik ez dakiten euskaldun alfabetatugabeak ere, niri behintzat gero eta kezka gehiago sortzen didatenak. Ene ustez, arreta bereziz tratatu beharreko jendea da gaurko euskararen bilakabidean. Izan ere, euskara besterik ez dakien jendea geuregana erakarri beharrean uxatzen badugu, edota jende horri sendaezineko konplexua sartzen badiogu, begira nora goazen. Horregatik, gauzak bere onetik atera gabe, euskara kontuetan arreta eta zentzu handiz jokatu beharrean gaude.

Kasu konkretuetara jotzeko, oso erraza da, esaterako, silabak eta letrak janez edo aldatuz hitz egiten dutenen euskara ridikulizatzea. Baina joko hori arriskugarria izateaz aparte, linguistika aldetik oso kritikagarria da. Izan ere, horrela hitz egiten duenak euskara asko daki, zeren eta silabak eta letrak ez bait dira nolanañi jaten edo aldatzen, mende luzetako tradizioa duten lege eta usarioen arabera baizik. Gainera, gisa horretan hitz egiten duena euskara jakin baten lekuko da (euskalki edo subeuskalki batena). Hortaz, azken finean, leku horretan euskarak horrela funtzionatzen badu, horixe da euskara leku eta maila horretan eta kito.

Kontsiderazio hauek gogoan hartzeke, euskara modu hori arinki gutxieste a edo «zuzendu» eta «hobetu» nahi izatea, arriskugarria gerta liteke eta zenbaitetan listotik pasatzea ere izan daiteke, esaeraren zentzurik txarrean.

Besterik da, noski, gaurregun jendaurreko komunikabide edo jardunetan horrela (silabak eta letrak janez edo aldatuz) hitz egin behar den ala ez. Dударik gabe, kazetariak eta jende ikasiak euskaraz alfabetatua izan behar du eta euskara estandarizatua erabiltzeko gauza. Baina horrezaz gainera, herriaren hizkera ere beste inork bezain ongi menderatu beharko luke, bere euskalkia gutxienez.

Bukatzeko, euskararen arazoak beren textuinguru zabalean planteatu behar dira, gauzak bortxatu eta bere onetik aterako ez badira. Zentzu honetan, ez da ahaztu behar euskarak —beste edozein hizkuntzak bezala— maila, erabilera eta errejistro asko dituela. Baina horien guztien gaintik eta azpitik, euskara komunikazio-tresna da batipat. Nork bere mailan eta bere ikuspegitik tresna hori lantzea eta zorroztea litzateke helburua eta irtenbidea. Dena den, bada ordua eta tenorea euskarari dagozkion auziak zentzu onez planteatzeko, batez ere euskararen eguneroko erabilera tartean dagoenean. Eta kasu honetan zentzu onak zera eskatzen duela uste dut, besteak beste: euskara besterik ez dakitenei konplexurik inolaz ere ez sartzea.

Joxe Lizarralde

Berbetan

Begi bistakoa da edozein errealizadorek, programa baten egitura pentsatzerakoan, eman nahi duen mezua eta ideiak, eta nola edo nolako martxan eman nahi dituen argi eta garbi eduki behar duela buruan.

Nola bata hala bestea, mezua eta emateko era bereziki ukitu nahi den ikuslegoaren nolakotasunak markatuko ditu. Zera horiek zehatz eta mehatz egiaztatzen dira «Berbetan» telesaioan.

Programari buruz neure iritziak azaldu aurretik garbi aitortu nahi dut, programa bat ondo mugatutako «adin-mota» bati zuzendutakoa denean, adin hori iritsi ez duenarentzat edo bere bizitzan kultura aldetik adin horri dagokion eskarmentuaren jabe ez denarentzat ez dela erraza aurka edo alde jartzea.

Gogoan daukat «Berbetan», oraingo izenburuz azaldu aurretik, iragarri zenean, gaia adierazi nahirik eta ez benetako izenburua, «Euskaraz» aipatu zela. Horrekin aditzera eman nahi zen programaren eduki nagusia Euskara izango zela. Programazioaren beste ataletan, euskara gai desberdinez aritzeko tresna zen, kirolak, gastronomia, informazioa etab. «Berbetan»ek, alderantziz, hizkuntza bera izango zuen mezu nagusia, hizkuntzak izango zuen lehentasuna.

Inguruko telebistetako zenbait programa zetorkigun denori burura: «El Catalá de primera má» (Katalaneraz alfabetatzeko programa), J. Calvo Soteloren «La bolsa de los refranes», gaztelaniaren erabileran egiten diren okerrak salatuz, Criado del Val irakasleak TVEn egiten zuen programa, Espainiako bigarren kateko «Follow me», etab. Programa hauek badute beren helburu berezia hizkuntz mezuaz aritzerakoan eta helburu horri egokitzen diote beren egitura.

«Berbetan» J. M. Aranaldek aurkezten eta zuzentzen du. 5 minutuko iraupena du eta astean hiru egunetan ematen da. Egitura xume-xumea du: lagun batek, berak bakarrik, bere bulegoan eserita, zuzenean hitzegiten die ikusentzuleei, gai herrikoiren bati buruz, askotan eta jakinduria sakonez, olerkariak, bertsolariak, atsotitzak etab. aipatuz.

Programa erabat xumea da —pobrea ere esan daiteke, nahi izanez gero—. Hizlariaren aurpegia du ardatz nagusi, bere egiteran ahozko zibilizazioari dagozkion elementuekin gehiago tajutzen ditu bere estiloa eta moldeak (narratzaile herrikoiak, herriz herriko albistariak, plazetako saltzaileak, apaizak beren pulpituetan, etab.), Gutenberg-en ondorengo ikusentzunezko zibilizazioak gure eskuetan jarri dituen baliabideekin baino.

Bestalde, gauza nabaria da zein «adin-moduko» jendeari zuzentzen zaion: baserrietan sortutako jendeari batez ere, apaizen hitzaldiak elizan entzuten ohituta daudenei, 45 urtez gorakoei, beraz. Eta, jakina, euskaldunzaharrei.

Iritzi-ikerketarik egin gabe ere, beldur handirik gabe esango nuke programa honek ez diola ezertzo ere esaten arestian aipaturiko giza-mota horren neurritan sartzen ez denari.

Nere hitzon frogagarri, emanaldia girotzen duen inguruan aipatuko nuke, goian esandako entzulegoari minik emango ez dion maisu-aireko dekoratuz moldatua, bulego garbian ondo tolestuta eta txukun jasota paper eta karpetak bistan, eta atzean, aurkezlearen irudiari oreka lasaia emateko, zenbait landare eta baserri bat paretako koadroan. Musika klasikoaren sintoniak eta aintzinako harri eta baxuerliebeen irudiek gehiago mugatzen dute, halabeharrez, ilunabarreko solasaldi gozoa.

Era berean, bai progamaren joera moralizatzailea, hizkuntzarekiko paternalismoz kutsatua, bai emanaldiaren erritmoa amorragarri gerta daitezke saioak liluratzen ez dituenentzat.

Telesaio horren egileei erasotzeko asmorik gabe ere, nabarmen dago hizkuntz irakaskuntzan, edozein mailatan, kontutan hartu beharreko alderdi askori ez zaiola behar bezalako jaramonik egiten.

Joan Migel Gutierrez